

## UDALBATZARI

Udalbatzak, 2014ko abenduaren 18ko bilkuran, Mugikortasuneko Kontseilu sektorialaren Araudiaren hasierako onespena ematea erabaki zuen.

Hasierako onespén horren iragarkia iragarki oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2015eko urtarrilaren 7an, eta, hala, jendurrean jartzeko eta entzuteko aldia hasi zen, 30 lanegunerako.

Jendurreko epea bukatuta, ez da iradokizunik edo alegaziorik aurkeztu. Ondorioz, Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 49. artikuluko azken paragrafoan ezarrita dagoenez, ordu arte behin-behinekoa zen erabakia behin betiko onartuzat jo behar da eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aldaketaren testua publikatuko da.

Horiek horrela, Udalbatzari jakinarazten zaio, Donostiako Udalbatzaren Organo Araudiko 113. artikuluan xedatutakoa jarraituz, aipatutako udal ordenantza aldatzea erabaki zuen akordioa behin betiko bihurtu dela.

## AL EXCELENTISIMO AYUNTAMIENTO PLENO

El Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 18 de diciembre de 2014, aprobó inicialmente el Reglamento del Consejo Sectorial de Movilidad.

El 7 de enero de 2015 se insertó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el tablón de edictos anuncio de la citada aprobación inicial, abriéndose el plazo de exposición pública por plazo de treinta días hábiles.

Dentro de dicho plazo no consta que se haya presentado sugerencia ni reclamación alguna, por lo que, de conformidad con lo dispuesto en último párrafo del artículo 49 de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases del Régimen Local, puede entenderse definitivamente adoptado el acuerdo de aprobación inicial y procede, por tanto, la publicación del texto íntegro de la modificación el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Por lo expuesto, de conformidad con el artículo 113 del Reglamento Orgánico de Pleno, se da cuenta al Excmo. Ayuntamiento Pleno de la aprobación definitiva de la modificación de dicha Ordenanza.

Donostian, 2015ko martxoaren 9a

**IDAZKARIORDEA**

**Iñaki TXINTXURRETA PERDIGUERO**